



Erandioko Kalezulo gaztetxeak bosgarren urteurrena ospatuko du, azaroaren 4an eta 12an. ▶5

Gure inguruotako txoriengan arreta jarri du Juan Luis Mugertzak, euren izaera eta izenetan. ▶22-23



hiruka

Uribe Ko



75. zenbakia

2016ko
azaroaren 4tik
azaroaren 9ra arte

Emakumeei ezarritako rolak iraultzen

Oihana Torre Landa artista erandioztarrak arau patriarkalak ipinitako rolen banaketaz hausnartu du FemBox arte-ikerlanean. Bere obra Getxoarten dago ikusgai. ▶10-11



«Ipar eta Hego Euskal Herria hurbil daude»

Bea Salaberri Larre idazle baxenabartarrak *Baionak ez daki* bere lehenengo liburua aurkeztu du Algortan, Iparra Galdu Gabe jardunaldien barruan.

Urriaren 27an, eguena, irakurleak iritziak elkartrukatzeko aukera eduki zuen Bea Salaberri Larre (Donamartiri - Nafarroa Beherea,

1979) idazleak. Uribe Kostako Irakurleen Txokoko (UKITX) lagunek berba egin zuten beragaz *Baionak ez daki* (Susa, 2015) liburuaz. ▶16-17

HERRIZ HERRI LEIOA

Leioa, sexu-erasoen aurka

Neskato bati sexu-erasoa egin zioten pasa den martitzen goizaldean. Herritarrek erabateko gaitzespena adierazi dute.

Ehunka herritar batu zen eguazten iluntzean Leioako Boulevarden, martitzen goizaldean neskato bati egindako sexu-erasoa eta indarkeria matxista salatzeke. Gainera, babesa eta elkartasuna erakutsi zieten biktimari eta bere hurkoei. Ekimenean, Leioako Udala, Emakunde, alderdi politiko denak eta herriko hainbat elkarte izan ziren. ▶6

Gorliztarren artean osasuna jagoteko sarea martxan ipini dute, eta aurkezpena azaroaren 16an izango da, Sertutxenan. ▶9

ArgiHizkiak erakusketa Plentziako Goñi Portalen egongo da hilaren 7tik 11ra arte; gero, institutura eroango dute. ▶13

Musikaldia zikloa egingo dute Sopelan, aste-akabu honetan eta hurrengoan; kontzertuak eta tailerrak egongo dira. ▶14

Zentsura At! jaialdiak Algortan eta Areetan eskainiko ditu hainbat dokumental eta kontzertu didaktiko bat. ▶15

Terrazetarako arau berriak

Ostalaritzari eta merkataritzari lotutako erabilera publikoko lekuak arautzeko ordenantza onetsi du Udalak.

Getxoko Udalbatzak behin betiko onetsi du udalerriko erabilera publikoko guneak erabiltzea arautzen duen udal-ordenantza, ostalaritza- eta merkataritza-jardueri dagokiena. Hala, terrazak eta barrak ipintzearen inguruan orain arte egon den araua ordezkatzeko du ordenantza berriak. Urriko osoko bilkuran neurri horren alde agertu dira EAJ eta PSE-EE alderdiak; PP, EH Bildu eta Ciudadanos abstenitu egin dira, eta GUK aurka agertu da. Jarraibide berriak zazpi aldaketa jasotzen ditu, zenbait alegazio baietsi dituzte-eta. «Ordenantza honen azken helburua da atsedena, espazioa eta aisialdia gozatzeko eskubide publikoa, eta egoera ekonomiko zail batean ostalaritzaren eta komertzioaren interesen babesa bateratzea», nabarmendu du Joseba Arregi Hirigintzako zinegotziak.

Hala, ordenantza berriak hiru terraza mota onartzen ditu, gune publikorako dauden baldintzak kontutan hartuta. Kokalekuak aztertzerakoan, leku bereziak sortu dira, tratamendu berezia izango dutenak, hiru ezarpen-denboraldi ahalbideratuz (urtekoa; sasoikoa, martxoaren 19tik azaroaren 4ra; eta udakoa, ekainaren 1etik iraila-

ren 30era). Gainera, baimena jasotzeko prozedura sinpletu da eta berrikuntzak ahalbideratu dira, besteak beste.

Guztira, 18 alegazio jaso dituzte: 2 enpresa-elkarteenak (Getxo Enpresa eta Bizkaiko Ostalaritzako Enpresaburuen Elkarte), 10 auzokideenak, 4 Algortako ostalarienak eta 2 Areetako ostalarienak. Alegazio horiek aztertze txosten teknikoa egindakoan, beste elkarrizketa-txanda bat egin zuten talde politikoek, eta azken testu bat taxutu zuten, hasierako testuarekiko aldaketak jasotzen dituenak. Jasotako alegazio kopuru handia txalotu du PPK, eta or-



Terrazak arautzeko ordenantza berria onartu dute.

denantzian sartu diren hainbat kontu azpimarratu ditu. Halere, hobetu beharreko zenbait ezaugarri ere ikusi ditu.

Algortako erdigunea, berritu

Algortako erdigunea zaharberritzeko lehenengo urratsa eman du Getxoko Udalbatzak. Horri dagokionez,

741.000 euroko aurrekontua onartu dute, auzo horretako trafikoa moldatzeko eta erdigunea oinezkoentzat erosoagoa izan dadin. Hala, Algortako etorbidea urbanizatzea erabaki dute, Telletxe eta Torrene kaleen arteko ingurua, hain zuzen ere. Bertan, espaloiak zabaldu eta autoen trafikoa hobetzeko hainbat neurri ezarriko dituzte, besteak beste. Hori da izango da proiektuaren lehenengo fasea, Gobernu-taldeak (EAJ eta PSE-EE) Alderdi Popularragaz adostutakoaren arabera, eta Algorta egituratzen duen ardatz osorako izango dena. Algortako etorbidea urbanizatzeaz gainera, Euskal Herria kaleko zati bat oinezkoen ibilgune bihurtzea ere aurreikusi dute, Amezti eta Mariandresena kaleen artean. Modu berean, aparkaleku bat eraiki gura dute, Manuel Gainza plazaren azpian, abonu bidez erabiliko litzatekeena; auzokideek ere bertan utzi ahal izango dute autoa. ◀

Hiriko lursailen gaineko zerga-batzea

Udalbatzak behin-behinean onetsi du aldatzea hiri-izaerako lursailen balioaren gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala. Ordenantza hori egokitu behar izan dute Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatu duen katastroko balioen eguneraketa dela-eta, datorren urtean indarrean sartuko baita. Ignacio Uriarte Ogasuneko zinegotziak azaldu duenez, aldaketa-proposa-

mena «egokitzapen bat da, batez ere teknikoa: errentaren atalasea %50 gehitzea da, kuota osoaren gaineko %33ko hobaria jaso ahal izateko; hori honako kasuan: heriotza dela-eta, ezkontideari edo egitatezko bikotekideari ohiko etxebizitza eskualdatzen zaionean kosturik gabe». Proposamenaren aurka agertu zen PP; oster, abstentziora jo zuten GUK, EH Bildu eta Ciudadanos alderdiek. ◀



LIBURU ETA PAPER DENDA
ITXAS-IBUS

1960tik zurekin!

Torrene 2, ALGORTA. 944 911 427

arteskola

ESKAINITZA BEREZIA

4-12 URTEKO HAURRENTZAT
ORDU BATEKO KLASEA DOAN

INFORMA ZAITEZ 666 92 19 19

ALGORTA. C/Andrés Cortina, n.28. BAJO. WWW.ARTESKOLA.NET

BORDATUAK
EUSKAL JANTZIAK

AINGARA

Aurrezki kutxa, 18. 48930 ERROMO-Getxo
94 403 89 53 • www.bordadosaingara.com

prentsa • aldizkariak

ITXASGANE

Getxoko kirol portua • 94 491 53 21

GURE ETXEA
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

OSABIDE Hortz-Klinika
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behean eskuina. ALGORTA • 94 430 76 96

VII. Pintxo-lehiaketa

azaroak 5, 6, 12 eta 13

GetxOn egin

PINTXOA
1€



2015eko irabazleei hiru galdera:

1. Zure ustez, euskara entzuten da tabernetan?
2. Jendeak euskaraz eskatzen du?
3. Pintxo Lehiaketak laguntzen du euskara gehiago erabil dezaten?

Laubide Taberna

MIREN. Basagoiti etorbidea 76, ALGORTA

«Euskararen erabilera onena» sariaren irabazlea



- 1 Jendearen arabera izaten da... Euskaraz dakitenak daudenean bai entzun daiteke, baina denetarik entzun daiteke.
- 2 Bai, badago jendea euskaraz eskatzera animatzen dena. Jaiak eta ekimen bereziak daudenean, batez ere, orduantxe gehiago animatzen dira gauzak euskaraz eskatzera.
- 3 Egia esan, ez dakit; ez da erraza antzematea beren-beregi eragina duen jendea animatzeko euskara gehiago erabiltzera.

Algortako Batzokia Taberna

JAIME. Algortako etorbidea 104, ALGORTA

«GetxONegin pintxo onena» sariaren irabazlea



- 1 Gutxi entzuten da; halere, euskaltegia dago taberna gainean, eta ikasleak datozenean bai egiten dute euskaraz, bestela ez.
- 2 Bai, jendea animatu ohi da euskaraz eskatzera, baina ez pentsa kontu orokorra denik.
- 3 Bai, noski. Behintzat baliagarria da gogoan izateko nortzuk garen, nondik gatozen eta zein den gure hizkuntza. Hori indartu beharra dago eta euskara sustatzeko egiten diren ahalegin guztiak ondoetorriak dira hemen.

Nikkou Sushi-Bar

TOMÁS. Andikoetxe 2, ALGORTA

«Barrarik onena» sariaren irabazlea



- 1 Gutxi, baina bai entzuten da euskara. Nik ez dakit euskaraz, baina tabernako gauza guztiak euskarara itzuli ditugu euskararen erabilera hori sustatzeko asmoz.
- 2 Bai, gainera oso dibertigarria da, *sushia* ezin da euskarara itzuli, eta xelebrea da entzutea euskarazko eta japonierazko hitzak elkarregaz.
- 3 Noski baietz! Duda barik, modu oso interesgarria da euskararen erabilera sustatzeko.

Villamonte Taberna

IKER. Salsidu etorbidea 20, ALGORTA

«Pintxo tradicional onena» sariaren irabazlea



- 1 Esango nuke gaur egun gero eta gehiago entzuten dela euskara tabernetan. Ez dakit zein den arrazoia, baina hala da.
- 2 Denetarik dago. Badago jendea euskaraz egiten duena, baina gero tabernarioi erdaraz zuzentzen zaizkigu; edo alderantziz ere bai!
- 3 Lehiaketak irauten duen bitartean, seguruenik bai; baina luzera begira, ez dakit ba...

Igarri osagai sekretua, euskaraz!

Aurton, aurrekoetan ez bezala, pintxoek osagai sekretu bat izango dute. Hori asmatzen dutenak sari batzuen zozketan sartuko dira; eta horri buruzko testua euskaraz idazten dutenek ere sari bat lor dezakete. Hala, alde batetik, pintxoari osagai sekretua igarriko diotenen artean honakoak zozkatuko dituzte: Euskaltelek emandako *Ipod Nano* bat; Basalbo

baserrian lagun birentzako afaria; Coca-Colak emandako sarrera bi Athleticen partida bat ikusteko; Coca-Colak emandako sarrera bi Bilbao Basketen partida bat ikusteko; eta, Uniduo Selección taldearen 50 euroko erosketa-txartela. Beste aldetik, osagai sekretuari buruz bidaliko diren testurik onenen artean honako sariak banatuko dituzte: erloju eder bat, Iñaki Bitxitegiaren eskume-

nez; Euskaltelek emandako *Ipod Nano* bat; Coca-Colak emandako sarrera bi Athleticen partida bat ikusteko; Coca-Colak emandako sarrera bi Bilbao Basketen partida bat ikusteko; eta kosmetika ekologikoz egindako bilduma bat, Landalore etxearen eskumenez. Modalitate bietan parte hartzeko mezu bat bidaltzea beharrezkoa da, WhatsApp bidez, 684 265 831 telefono-zenbakira.

Parte hartu
WhatsApp bat
bidaliz

684 265 831
telefono-zenbakira,
bertan hauek zehaztuz:
**osagai sekretua, testu laburra
euskaraz** eta pintxo dastatu
duzun tabernaren izena.



Getxo

Kontratazioak bultzatu gura ditu Udalak

Udalerriko langabeak laneratzeko diru-laguntzak emango ditu; 263.000 euro, guztira.

Udalerriko beharbakoak kontratatzeke diru-laguntzak eska ditzakete Getxoko enpresek. Laguntza horietarako 263.000 euro bideratu ditu Udalak, Lanbideren enplegua sustatzeko lekuko ekintzetarako laguntzen deialdiaren barruan. Hala, Udalak deialdi bi egin ditu: lehenengoa, Getxoko enpresa, komertzio eta profesionalei zuzendutakoa, udalerriko langabeak kontratatzeke; eta, bigarrena, zailtasun bereziak dituzten pertsonak gizarteratzen eta laneratzeko diharduten enpresentzat, enplegu-zentro berezientzat eta irabazteko asmo bako erakundeentzat. Kasu

bietan Lanbiden izena emanda dau den herritarrak kontratatzea exijituko dute; halere, enpresak eurak izango dira langabeak aukeratzen dituztenak.

Diruz lagunduko dira 2016ko ekainaren 17an hasi eta 2017ko maiatzaren 31ra arte enpresek egiten dituzten kontratuak; horiek 3 hilabete iraun beharko dute, gutxienez; eta lanaldi osoko edozein kontratazio-modalitateagaz formalizatu ahal izango da, prestakuntza eta ikasketetarako kontratuak izan ezik. Laneratzeko enpresentzako laguntzak, berriz, abenduaren 31ra arte eskatu ahal izango dira. Lanaldi osoan 6 hilabeteko iraupena edo luzeagoa daukaten kontratuak lagunduko dituzte. Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten 4 pertsona kontratatuko dituzte, gehienez, eta, horietatik bik emakumeak izango dira, gutxienez. ◀

info+: getxolan@getxo.eus / 944 660 140

Kalean «litroak egitea» galarazteko mozioa onartu dute

Kalean «litroak egitearen» kontra-ko PPren mozioa onartu du Getxoko Udalbatzak, testigantza-izaeragaz; Ciudadanosek babestuta, besteak beste. Kalean edatearen gaineko ordenantza bat egitea eskatu dute, jarduera hori galarazteko helburuagaz. Horrez gainera, udalerriko jaietako araudia berrikustea eta adingabeen artean alkohol-kontsumoari buruzko hezkuntza- eta kontzientzia-izaerako kanpainak egitea eskatu dute popularrak. Modu berean, poliziaren presentzia areagotzea eta adingabeei alkohola saltzen dieten saltokiei edo lekuei isunak areagotzeko eskatzen zuen popularrak aurkeztutako mozioak. Ciudadanos taldeak testua babestu du; halere, gainerako talde politiko guztiek azaldu dutenez «arazo» horri aurre egiteko ordenantza bat egitea ez dela «konponbidea». ◀

Algortako dendetan kontsumitzeko kanpaina berria

Algortako Dendak elkarteak *Algortan kontsumitzeak saria dauka* izeneko kanpaina martxan ipini du, udalerrian kontsumoa errazteko eta sustatzeko asmoz. Guztira, 34 denda eta ostalaritzako establezimenduk parte hartzen dute, eta *Aurkitu eta irabazi* goiburua daroa lehenengo ekimenak. Hala, bertoko horietan kontsumitzen dutenek txartel bat jasoko dute; horien bitartez hainbat sari banatuko dituzte antolatzaileek, berbarako doako kontsumizioak, deskontuak dendetan eta ile-apaindegiko zerbitzuak. Jakinarazi dutenez, guztira 3.000 euro baino gehiagoko balioa duten sariak banatuko dituzte, 1.500 saritan. Promozioa azaro osoan egongo da martxan, eta lortutako txartel saridunak abenduaren 15era arte kontsumitu ahal izango dira, egun hori barne. ◀

facebook: «Algortako dendak», «Descubre Getxo»

AREETAKO
GELTOKIA PLAZA

PLAZA ESTACIÓN
DE LAS ARENAS

4>6//11

2016
GETXO
ARTE

**PRAKTIKA
GARAIIKIDEEN ARETOA
SALÓN DE PRÁCTICAS
CONTEMPORÁNEAS**

Bisita gidatuak, haurrentzako tailerrak, helduentzako tailerrak, programa eszenikoa, hitzaldiak, solasaldiak...

Visitas guiadas, talleres infantiles, talleres para adultos, programa escénico, charlas, coloquios...

OSTIRALA // VIERNES: 11:00 - 14:00 / 17:00 - 21:30
LARUNBATA // SABADO: 11:00 - 22:00
IGANDEA // DOMINGO: 11:00 - 14:00 / 17:00 - 20:00

Informazio gehiago:
Y más información en:
www.getxo.eus/getxoarte

ANTOLATZAILEAK // ORGANIZADORES

Getxo
Auzoak

Getxo
MAYORÍA DE
AUSOAK

HABESLEAK // PATROCINADORES

Getxo
MAYORÍA DE
AUSOAK

Bizkaia

bbk

EL CORREO

LAGUNTZAILEAK // COLABORADORES

NEO
TECNOLOGÍA

metro hilban

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

Erendio

Kalezulo gaztetxea, bost urtean

Azaroaren 4an eta 12an, hainbat jarduera egingo ditu Kalezulo gaztetxeak, 5. urteurrena ospatzeko.

Pasa den urriaren 23an bete ziren bost urte Kalezulo gaztetxea jendaurrean aurkeztu zutenetik. Aurretik, «Erandion gaztetxea bai!» goiburuagaz kanpainan abiatu zuen Erandioko Gazte Asanbladak (EGA) eta ia 200 neska-mutilek parte hartu zuten. Hala, Jose Luis Goioaga etorbideko kantoi batean zabaldu zuten gaztetxea, utzita zegoen lantegi zahar bat okupatuz. Poliziak gaztetxea hutsarazi zuen arren, Kalezulokoek berrokupatu egin zuten; epaiketa biren eta belaunaldi-aldaketa baten ostean, gaztetxeak sasoian dirau. Lizentziarik ez dutenez, udal-go-



Orain dela bost urte, gazte-asanbladak deitutako «uholde laranja» batek aurkeztu zuen gaztetxea.

bernuak hainbat baldintza eta «traba» ezarri dizkie. Testuinguru horretan ospatuko du Kalezulok bere bosgarren urtemuga, bariku honetan eta hurrengoan. EGAK adierazi duenez, gaztetxea «herriak eta herriarentzat» sortu da, bertan «ikasi, ezagutu, hausnartu,

autogestionatu, erlazionatu, dantzatu eta maitatu» ahal izateko. Oraindino ezagutzen ez duenak horretarako aukera izango du bariku honetan, 20:00etan, egingo duten ibilbide gidatuan; Kalezulo gunez gune zeharkatuko dute, zentzumenak lagun. ◀

Egitaraua

Azaroak 4, barikua

20:00 »Gune 1 Kutixi 1« ibilbide gidatua.

22:00 »Hamabost X 5«

zozketa-antzezlan eta afaltzeko aukera «paregabea».

Azaroak 6, domeka

18:30 Likore-tailerra: patxarana eta uxual-krema.

Azaroak 12, zapatua

11:00 Eskalada-txapelketa herrikoia.

12:30 «TXK feministarekin zita» sorkuntza-tailer mistoa.

14:30 Herri-bazkaria.

16:00 Horma-irudiaren margotze kolektiboa.

20:00 Zaratamba batukadagaz poteoa.

23:00 Akabuko parranda, Gasteizko Tarantistak eta Uribe Kostako Feminaziak disko-jartzaileak.

info+: [Twitter.com/KalezuloErandio](https://twitter.com/KalezuloErandio)

B! BILBAO EXHIBITION CENTRE

XI. STOCK EUSKADI

AZAROAK 4,5,6

11:00 - 21:00

WWW.STOCKEUSKADI.COM

ZOZKETA!
3000€

-80% KO BEHERAPENAK

FOODTRUCK INGURUA

ETXEKOAK
MODA ETA BITXIGINTZA
EGUZKITARAKO BETAURREKOAK
OSAGARRIAK
KIROLA
OSASUNA ETA ASKOZ GEHIAGO...



Lumak astindu

**KOLDO
TELLITU MEJIA**
Ikastolen elkarteko
lehendakaria

Auzolanean ametsak egia bihurtzen

Azken udazkenetan bezala, badator euskaltzaleon artera Errigora-ren «Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka» kanpaina, Euskal Herria oinarri hartuta elkarlana lanabes duen ekimen herritarra. Helburu ditu Nafarroa hegoaldeko produktua Euskal Herriko plazan kartzatzea, urruneko ordez bertakoak kontsumi ditzagun, erriberako euskalgintzari bultzada ekonomikoa ematea eta herrigintza, nazio eraikuntzari auzolanean ekarpena egitea.

Honelako ekimenek duten garrantzia azpimarratzeko azken honi helduko diot. Herria, herri-tarrak administrazioen laguntzarekin zain egon beharrean, gizartearentzako oinarritzakoak diren helburuen lorpenerako aktibatu eta antolatzen direnean, kasu honetan euskara eta elikagai burujabetza, ametsak berriro egia bihurtzeko bidean jartzeraino, erribera euskaldunaren ametsa geroz eta hurbilago izatea lortuz.

Urteetan gure herrian oinarritzakoak diren Euskara, euskal kultura eta euskarazko hezkuntza biziraun eta garatzea lortu dugu hasiera batean ameslari nekaezinei esker, eta gero auzolanari esker, herritarren lanari esker.

Garai honetan, Euskal Herrian oinarritzakoak diren elementu horiekiko sentsibleagoak diren administrazioak izanda, Ibilaldiak ala Korrikak eta horrelakoak jada beharrezko ez direla iruditu ahal zaigu. Baina horrelakoak antolatzen jarraitzeaz poztzen naiz, eta baita Errigora bezala ekimen berriak sortu eta errotzeaz ere, auzolanean ametsak egia bihurtzeko lanean jarraitzen dutenak. Izan ere, helburuak garrantzitsuak izanda ere, prozesua, antolaketa herri-tar eta herrikoia, auzolana, ezin dira gure herri identitatetik desagertu.

Inoiz baino Errigorago! Eta hau guztia Zuri Esker. ◀

Leioa

Erabateko gaitzespena

Jendetzak salatu du
pasa den martitzen
goizaldean neskato bati
egindako sexu-erasoa.

Ehunka leioaztar batu ziren eguazten iluntzean Leioako Boulevarden, aurreko eguneko goizaldean neskato bati egindako sexu-erasoa eta indarkeria matxista salatzen. Ekimenean, Leioako Udalaren eta alderdi politiko denen ordezkariak parte hartu zuten, Emakunde erakundeak, Andra emakumeen elkarteko kideek, Leioako Mugi gazte-elkarteko kuadrillek eta hainbat herriko elkarte ere bai. Elkarretaratzeari, pankarta bi izan ziren, bata instituzionala, «Berdintasunaren alde eta emakumeen aurkako bortxakeriaren aurka» goiburukoa, eta bestea Mugi-



info+: Hiruka.eus/leioa

ko kideek sostengatutakoa: «Nazkuta gaude! Erasoa sexistarik ez!». Denek babes eta elkartasun mezuak izan zituzten eraso jasan zuenarentzat eta bere hurkoentzat. Mari Carmen Urbie-ta alkateak berretsi egin zuen Udalak

kaleratutako adierazpena eta «sexu-erasoen aurrean» bere «gaitzespen» irmoena agertu zuen: «Udalak emakumeen askatasun sexualaren kontrako eraso guztiak salatzen ditu; baina, bereziki, adingabekoen kontrakoak». ◀

Betiko ikastolara datoz Herberehetako hainbat ikasle

Leioako Betiko ikastolak eta Herberehetako Almende ikastetxeak elkartrukea egingo dute asteotan. Hala, datorren zapatuan, Loiuako aireportura helduko da ikasle-talde holandar bat. Euren etxetan hartuko dituzten Betikoko ikasleen sendiak ezagutu ondoren, astelehenen ondoetorria egingo diete ikastolan, bertako kulturaren hainbat ezaugarri erakutsiz. Hala, gazte holandarrek bertsolaritza, herri-kirolak, euskal dantzak, eta txistua, alboka edo panderoa bertoko instrumentuak ezagutzeko aukera izango dute. Modu berean, taloez gozatu ahal izango dute eta, ostean, bertoko ikasleak bazkalduko dute. Horren ondoren, Leioa



© ALMENDE COLLEGE

eta Getxo udalerrietan ibiliko dira, argazkilaritza-rallya egiteko. Hurrengo egunetan, itsasoa ikasgaitzat hartuta, ikasleek Ezkerraldea, Busturialdea eta Bilbo bisitatuko dituzte, arrantza, arrauna, industria, biodibertsitatea eta folkloreak berri izateko. ◀

Hamahiru gidariri isun bana ipini die Udaltzaingoak

Oraingo aste batzuk, urriaren 3tik 8ra bitartean, Udaltzaingoak zaintza- eta prebentzio-kanpaina bat egin zuen Leioan, Eusko Jaurlaritzako Herri-zaingo Sailaren laguntzagaz. «1.641 auto kontrolatu ziren eta horietatik 13k isuna jaso zuten: hamarrek gidatzerakoan telefonotik berbetan egoteagatik, eta gainontzeko hirurek Ibilgailuen Azterketa Teknikoa (IAT) eguneratuta ez izateagatik», azaldu dute udal-iturriek. Iragarri duten hurrengo kanpaina azaroaren 7tik 13ra izango da, eta gidatzerakoan izaten diren distrakzioetan oinarritutakoak dira, hau da, GPSaren erabilera, telefonoa, irratia... Leioako Udaltzaingoak horrelako hainbat kanpaina egiten ditu urtero udalerrian. ◀

Abeltzaintza eta Nekazaritza Azokaren izen-ematea, zabalik

Abenduaren 11n izango da Nekazaritza eta Abeltzaintzaren 29. Azoka Leioan, Udalaren Kultura eta Gazteria Sailak antolatuta. Bertan parte hartzeko izena emateko epea zabalik dago. Interesdunek eskabide-orria bete eta eskatzen den dokumentazio dena bidali behar izango dute posta elektronikoz, postaz edo faxez, azaroaren 11ko 14:00ak baino lehenago. ◀

infokultur@leioa.net / 946 072 571

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

**BETIKO
IKASTOLA**

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduerak ugari.
- Ikastolen Elkarteko ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA
94 464 23 64/94 464 33 07
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

ikastolenelkartea

Sopela

Herriko parkeen gaineko inkesta bat egin du egunotan Udalak

Egungo instalazioen inbentarioa ere jasoko du abiatutako proiektuak.

Sopeloztarren artean, 150 inkesta baino gehiago egin dituzte; Iturrieta, Gernika, Jauregizar, Urgixieta eta Errekagane parkeen erabiltzaileen iritzia ezagutu gura izan dute, beharren zein erabileraren ereduak bazten dituen txostena lantzeko helburuagaz. Auzokideen eskaerak jaso eta horiei erantzuteko martxan ipin daitezkeen jarduerak aztertzeko balio izango dio Udalari diagnostiko horrek. Hau da, herritarren zer iritzi duten jakin gura izan dute, aipatutako bost parkeetan egin daitezkeen hobekuntzak kontuan hartzeko. Horretarako, parke denetan, hainbat egun eta ordutegitan, erabiltzaile-kopurua zenbatu dute; inkestak



Jauregizar parkea. © SOPELAKO UDALA

lekuan bertan egin dituzte, hamar bat galdera jasotzen dituen galdetegi batzuen bidez. Itaunketaren bitartez, parke bakoitzeko erabiltzaileen profila,

erabilera-maila eta instalazioen abantailak eta beharrak ezagutu gura zituzten. Lanaren aurrekontua 17.625 eurokoa izan da (BEZa kenduta). ◀

Skate-parkearen harira, EH Bilduren zalantzei erantzun die Sopelako alkateak

Inauguratutako skate-parkearen inguruko zalantzak agertu zituen joan den astean EH Bilduk. Horren harira, Gontzal Hermosilla (EAJ) alkateak erantzun duenez, «Sopelako Udalak legeak ezarritakoa bete du, EH Bilduk bere gobernu-aldian lizitatu zuen proiektua gauzatu. Proiektu horrek ez zeukan skate-pistaren ingurua egokitzeko fase gehiagorik; horregatik, gaur egungo gobernu-taldeak proposatu behar du inguruaren egokitzapen hori, EH Bilduren aurreko gobernuak planifikatu ez zuena». Inguruari dagokionez, ekipamendu osagarriakaz (jesarlekuak, paperontziak, sarrerak hobetzea,...) hornitzea proposatuko du, «amaitu bako eta txarto planifikatutako proiektua osatzeko». Alkateak gaineratu duenez, ingurua egokitzeko proiektu bi daude martxan. ◀

info+: www.hiruka.eus/sopela

Umeentzako ekintza ugari antolatu ditu Ludotekak

Azaroan sartu berri gara, eta Sopelako Ludotekak prest du daborduko hilabete honetarako programazioa: txalaparta-tailerrak, mitologia-tailerrak, akelarre baten antzezlanaren prestaketa, horma-irudi mitologiko edo mural mitologiko bat eraikitzea eta Izenadubara irteera bezalako jarduerak iragarri dituzte. Azken ekintza horretarako leku-kopurua bete egin da daborduko. Akelarrea hilaren 12an, zapatuan, izango da; horretan parte hartzeko azaroaren 10a baino lehenago izena ematea beharrezkoa izango da. Akelarre bat antzeztuko dute, 17:00etatik 20:00etara, «euskal jantziakaz». Hurrengo zapa-



tuan, hilaren 19an, berriz, mitologiari lotutako horma-irudia egingo dute Kurtzion; txikienak goizez ibiliko dira, eta nagusienak, osterara, arrastiz. Horretan parte hartzeko ez da aldeaz aurretik izen-ematerik egin behar izango. ◀

Genero ikuspegiko film bat proiektatuko dute hilaren 10ean

Azaroaren 10ean, eguenagaz, genero ikuspegiko zinema-saioa egingo dute Kurtzio kultur etxean. Hala, Itzartu elkarteak antolatuta, *Reinas* filma proiektatuko dute, 18:00etatik aurrera. Manuel Gómez Pereirak zuzendutako filmak Espainia mailan homosexualen ezkontzen inguruko legediari buruzko ikuspegi bat lantzen du. Hala, ezkontzen lehenengoak izango diren bikote homosexualen eta familien arteko aferrak azaltzen ditu pelikulak, senideak askotan ez dira-eta egoten ezkontza horien alde. Carmen Maura, Verónica Forqué, Gustavo Salmerón, Unax Ugalde eta Paco León aktoreak dira komediaren protagonistak, besteak beste. ◀

Zerga eta tasak modu progresiboan doitzeari proposatu dute

Sopelako Gobernu-taldeak (EAJ eta PSE-EE) akordioak lortu ditu ordonantza fiskalak doitzeko. Hala, alde batetik, zaborrak batzeko tasa izoztea proposatu dute 2017ra begira; Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergari (TMIZ) dagokionez, atal fiskal desberdinak mahaigaineratu dituzte. Kasu horietan, igoera modu progresiboan ematea bilatuko dute, eta igoera bera zilindrada handiko autoetan kontzentratzea baita ere. Hiri-lurren baliogehikuntzaren gaineko Zergari (garai bateko gainbalioa) erreparatuz, horretan ere igoera progresiboa proposatu dute, betiere, epe laburra zigortuz, espekulazioa ekiditeko asmoz. ◀

ander deuna *hau herikuntzatik batxilergora*

Gatzarrine bidea, 47. 48600 SOPELA · 94 676 02 66 · 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus · www.anderdeunakastola.eus

ARTOLOZAGA ANAIAK
Tailerrak
Mekanika · Karrozeria · Elektronika

Sopelan
Gatzarrine z/g
94 676 00 13
94 676 38 14
www.taileresartolozaga.com

Sestaon
Miguel Servet, 6
94 472 13 74

Jatorrizko bermea mantentzen dugul!

BOSCH Service
Car Service

TXIBERRI
EDANTOKIA
FRONTOI PARTIKULARRA

AITA GOTZON 4, URDULIZ
94 676 07 15



Maratila

ITZIAR
LARRAZABAL GARDEAZABAL
ELAko eskualde-arduraduna

TTIP eta CETAr Ez! esango diegu azaroaren 5ean

TIP eta CETA itunak nazioarteko merkataritza itunak dira. Itun horiekin finantza kapitalak eta multinazionalak ekonomia, inguru-giroa, legeak eta pertsonen eskubideak beraien mesedetan zuzentzeko berme juridikoak eskuratu nahi dituzte.

Itun horiek merkatuaren eskubide eta askatasunak bakarrik defendatzen dituzte eta ez gizar-tearenak. Nazioarteko enpresen boterea bermatzen duten arau, hitzarmen eta itunen sarea loditu nahi dute.

Gure herriari, nahi duen eredu ekonomiko, sozial, politiko eta instituzionala erabakitzea dagokio; herriak, demokratikoki, adierazitako borondatea delarik muga bakarra.

Horregatik, TTIP, CETA eta TISA bezalako itunen aurka, Nazioarteko Herrien arteko itunekin bat egin behar dugu, nazioarteko enpresen agintearen aurkako eta gizar-tearen eta planetaren defentsarako juridikoki loteslea den nazioarteko tresna baita.

Beste mundu bat posible da, herrien alkartasunaren bitartez. Ekintza politiko, ekonomiko eta instituzionalaren lehentasunak aldatuz, pertsona eta horien beharrak, merkaturak eta kapitalaren interesen gainetik ezarrit.

Horregatik Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak hurrengo azaroaren 5ean Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan burutuko diren mobilizazioetan parte hartzeko deialdia zabaltzeko nahi du:

Bilbon: 13:00etan, kalejira Unamuno plazan; eta, 17:30ean, manifestazioa, plaza Eliptikan.

Donostia: 17:00etan, manifestazioa, Bulebarren.

Gasteiz: 12:00etan, kalejira, Andra Maria Zuriaren plazan.

Iruñea: 13:00etan, bus geltoki zaharrean, manifestazioa.

Finantza kapitalaren eta multinazionalen Europari aurre eginez, erabaki dezagun Europa soziala! ◀

Gorliz

Osasuna bultzatzeko

Osasun Sarea Gorliz
proiektua aurkeztuko dute
hilaren 16an, Sertutxenan.

Gorlizko auzokideen artean ohitura osasuntsuak sustatzeko asmoz, Udalak *Osasun Sarea Gorliz* izeneko proiektua martxan ipiniko du. Horren inguruko informazioa emateko bilera egingo dute hilaren 16an, eguaztenean, Sertutxena kultur aretoan, 18:30etik aurrera. Aurkeztuko duten proiektuaren helburua da herriko eragile

sozialen arteko sare bat sortzea; horretarako biztanleen parte-hartzea bideratuko dute, pertsonen osasuna eta ondo egona zabaltzeko. Hala, honakoa gura dute: herrian osasuna bultzatzea, komunitatearen garapena eta udalerriko biztanleek euren osasunaren kudeaketan ahaluntasuna sustatzea, biztanleriaren beharrak identifikatzea eta osasun aktiboan eragingo duten programak martxan ipintzea, besteak beste. Daborduko proiektuan parte hartzen duen lantaldeak azaldu duenez, osasun sare bat sortu gura dute, bertan osasuna bultzatze-

ko ekintzak eta ohitura osasuntsuak sustatzeko ideiak proposatzeko, «izan ere, osasuna herriko pertsona guztiak murgilduta gauden esparrua baita».

Proiektuaren aurkezpenean egongo dira Arantza Etxebarria Gorlizko alkatea, M^a Luz Marqués ESI Uribeko gerentea, Inés Urieta Uribeko Osasun Publikoko Koordinatzailea, Amaia Ajuria Uribe Kostako Osasun Publiko teknikaria, Ioar Ajuria eta Aiora Arrieta Mankomunitateko teknikariak, Itxaro Martin zinegotzia eta Gorlizko osasun-etxeko langileak ere, besteak beste. ◀

Berango

Merkatalgunera sartu-irteteko bide berria eraiki gura dute

Eskualdeko puntu askotatik ikus daiteke Berangoko merkatalgunen berriaren urbanizazio-prozesua. Decathlon, Lidl eta Mercadona enpresek baieztatu egin dute daborduko bertan euren dendak zabaltzeko dituztela. Halere, eremu horrek beste hainbat saltokitarako lekua dauka. Landaidako merkatalguneak 84.000 metro koadro izango ditu; Udalak Uribe Kostako lasterbideagaz zuzenean lotuko du bertara joateko bide batez. Izan ere, biribilgune bat eraikitzeak obren baldintzak onartu ditu Udalbatzak, Berangoko gune horretara sartzeko eta irteteko. Azaldu duenez, biribilgune



horrek helburu bi beteko lituzke: batetik, udalerriko trafikoa arintzea, Sabino Arana kalean, batez ere; eta, bestetik, sarrera berri bat ahalbidetzea industrialdera eta Eroskik inguru horretan duen supermerkatu. ◀

Genero-ikuspegiko artelanen lehiaketa antolatu du Udalak

Generoaren ikuspuntutik arte plastikoak lantzeko lehiaketa antolatu du Udalaren Berdintasun Sailak, aurreneko. Horretan, 12 urtetik gorako neska-mutiek parte hartu ahal izango dute. Kanpainaren goiburua *Beldur Barik* izango da; horrenbestez, Berdintasun sareak bultzatutako jokaerakaz lotuta egon beharko dute lanek. Diziplina bi egongo dira: pintura eta eskulangintza. Lanak Berangoeta kultur etxean aurkeztuko dira, azaroaren 18a baino lehenago, 09:30etik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara. Hiru sari emango dira, gutxira; diziplina bakoitzeko bana eta beste bat herriko artista onenari. ◀

Uribe Kosta

TTIParen kontrako manifestaziora deitu dute, zapatuan

Merkataritza askea bultzatzeko Europar Batasunak Kanadagaz (CETA) eta AEBakaz (TTIP) sinatutako hitzarmenen kontra mobilizazio-deialdia egin dute ELA eta LAB sindikatuak, eskualdean ere bai. Mobilizazioak Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan egingo dituzte zapatuan, hilaren 5ean; Bilbon 17:30ean hasiko da manifestazioa, plaza «eliptikan». LABek salatu duenez, hitzarmen biek «finantza-kapital espekulatzailearen» interesak «babestu» gura dituzte. ELAren ustez, gainera, itunak «okerreko» noranzkoan doaz, eta giza eskubideak babesteko «alternatiba» badagoela iragarri du. ◀

Unibertsitatea

Garraio sailburuak ez du uste zerbitzua handitu behar denik

Nuria Atienza Ahal Duguren Bizkaiko batzarkideak salatu duenez, EHUKo ikasle ugari gelditzen da autobusean leku barik Bilbon Leioako campusera joateko; hori dela-eta, autobus-zerbitzu horren maiztasuna handitzea proposatu zuen. Vicente Reyes Garraio sailburuarentzat, oster, ez da beharrezkoa Termibusetik Leioarako zerbitzu hori areagotzea. Gogoratu duenez, urte hasieran indartu zuten Bizkaibusen zerbitzu hori; hala, A2318 lineak «zazpi edo zortzi» autobus izaten ditu 07:30etik 09:00etara. Horrez gainera, linea horren galekua lekuz aldatuko dutela iragarri du. Sail-

buruak argitu duenez, geltoki berria EITBren aurrean egongo da, Zunzunegi kalean, azaroaren 7tik aurrera. Reyesek azaldu duenaren arabera, laster hasiko dituzten Termibus berritzeko obren eraginez egin behar izan dute aldaketak hori. Modu berean, baieztatu du Bizkaiko Mugikortasun Agintearen sorrera Eusko Jaurarlitzaren «zain» dagoela, «oraindik ez ditu tramiteak bukatu eta horri dagokion hitzarmena onartu behar du», azaldu du. Horren harira, iragarri du hurrengo batzar batean emango dituela zehaztapen gehiago tarifen integrazio-sistemaren inguruan zein egindako lanen gainean. ◀



LIMPIEZAS VALVERDE, S.L.
www.limpiezasvalverde.com

Saneamenduan adituak



944 634 689
619 416 077
valverde@limpiezasvalverde.com

Hobi septikoen garbiketa eta deuseztapena
Estalda-sailen garbiketa - Eroanbideen libriketa
Sareen ikuskapena T.V. ekipaagaz
Saneamendu obra mota guztiak

BULEGOAK:
Aita Gotzon, 40 Bis. 1. ez. 48610 URDULIZ



SUSEGUK
SU SEGURIDAD URIBE KOSTA S.L.

Suteen Kontrako Babes eta
Segurtasun-sistemak Uribe Kostan

ALARMAK · KAMARAK
SUTEAK · SARBIDEAK
SU-ITZALGAILUAK

Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun sailaren izena emandako
Segurtasun enpresa, E56 zenbakia

48/EPI-139 Isakuntza instalatzaile ordainkortzaile
Isakuntza enpresa, 48/LMI-121 instalatzaile

Inaki Deuna, 5. 48600 Sopela
www.suseguk.net / dptocomercial@suseguk.net
946 763 457 - 627 872 982



EGINKOR
INMOBILIARIA

36 urte baino gehiago Algortan!

Cruz Elosua
Basagoiti etorbidea, 55 lonja
48991 ALGORTA
944 600 962 / 652 777 962
eginkor@euskalnet.net

Saso berria estreinatzeagaz batera, etxe barruan denbora luzeagoan egon ohi gara; hala, udagoiena aproposa da gure txokorik beroena zaharberritzeko edo atontzeko. Hona horretarako Uribe Kostako berto-bertoko aukerak, dekorazio- eta interiorismo-sektoreari lotutakoak: arkitektura-estudioak, higiezin agentziak, berrikuntzetarako, margotzeko, tapizeriak... Gainera, ez ahaztu hauek denek euskarazko komunikazio-proiektu hau ere bultzatzen dutela.



Udagoien honetan etxea jantz egizu!

hiruka
Berton, bertoko aukerak



estudio.k

hirigintza
ingeniaritza zibila
arkitektura

Basagoiti Etor. 69 - 1º
GETXO
www.estudiok.es

30 urte

#30urte_estudiok
#30años_estudiok

aldai

Tapiztegia
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak

Basagoiti etorbidea 32
48990 Algorta
94 460 90 31

GARAIZAR
BARRIKUNTZAK

Eraikuntza zerbitzu integralak

Illeta, 1. 48991 ALGORTA
94 430 52 43 - 607 952 977
regaraizar@gmail.com - www.garaizar.biz



CERRAJERIA JOSU

LARRIALDIAK 24 orduz 608 877 349

DENDA Astelehenetik barikura 09:30-14:00 / 16:30-19:30 944 308 659

Zabaltze gehienak apurtu gabe - Kodigo bidezko eta kopiatu ezin diren giltzak - Ateak ixteko malguki hidraulikoen salmenta eta instalazioa
Segurtasun-sarrailen instalazioa eta Anti-bumping sistemak - Komunitateetarako "bizitza luze" rako sarrailak - Burdinezko ezkutak

40 URTE BAINO GEHIAGO SARRAILAGINTZAN - IBILGAILUEN ETA GARAJEETARAKO GILTZAK!

Denda berria Algortako erdigunean, Sarrikobaso 12.

Albuma





Oihana Torre Landa (1981) artista erandioztarrak Izarrak Boxing taldeari begiratu dio; «indarra, ahalegina, konstantzia eta motibazioa» topatu ditu bertan, «sozialki emakumeak lotzen ez diren kontzeptuak». FemBox proiektua sortu zuen hortik eta «beste ez ohiko genero-irudikapen batzuk ikustarazteko beharretik», boxeoa dabilzan emakumeengan arreta ipiniz. Ikerlan hori Getxoarte aretoan ikusi ahal izango da, azaroaren 4tik 6ra.

Araua aldarazten



Putxera Eguna, Pepetxinen omenez

Pepetxini gorazarre egiteko asmoz, zapatu honetan, azaroak 5, zazpigarrenez egingo du Putxera Eguna Marmitón kolektiboak. Hala, goizeko 09:00etatik 11:00etara bitartean egongo da izena emateko aukera eta doakoa izango da. ◀

Marko Makako filma, umeentzat, euskaraz

Domeka honetan, azaroak 6, *Marko Makako* animazio-filmagaz gozatzeneko aukera izango dute umeek Berango Antzokian. Euskaraz emango dute, 18:00etan; sarrera, doan. Zineuskadik aurkeztu zuen filma orain urtebete. ◀

Euskararen Eguneko bazkarirako txartelak

Astebete lehenago, azaroaren 26an, ospatuko dute Barrikan Euskararen Nazioarteko Eguna. Hala, egun horretan egingo duten bazkarirako txartelak (15 euro) daborduko lor daitezke udal-kulturgunean, azaroaren 20ra arte. ◀

Mahai-jolasen txapelketa Topalekua (Goienkale, 25) | Plentzia

Parte-hartzea, libre.

2016/11/05 - 18:00

Ozzy animazio-filma Kultur etxea | Urduliz

Danontzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 3,50 euro.

2016/11/05 - 19:00

Truman filma Berango Antzokia | Berango

Pelikula 12 urtetik gorako ikusleentzat da. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Mustang filma Kultur Leioako entzungela | Leioa

Perseo Zineforumaren *Emakumea eta Islami: sekretuak eta gezurrak* zikloa. 7 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,50 euro.

2016/11/09 - 2016/11/27

Zure komikia maite dugu erakusketa

Torrene aretoa (Algorta) | Getxo
Getxoko Komiki Azoka. Gipuzkoako eta Bizkaiko komiki-sustatzailerakaz. Ordutegia: eguaztenetik zapatuta, goizean eta arrastian; eta domeketan, goizez bakarrik. Sarrera, doan. Informazio gehiago: www.getxo.eus

Algortako Torrene aretoan banatu ziren aurtengo lehiaketaren sariak; erakusketa bertan egon zen urriaren 30era arte.



ArgIHizkiak erakusketa, Plentzian

Bosgarren ArgIHizkiak literatura-lehiaketaren 10 argazkiak eta horietan oinarritutako euskarazko 40 testu labur onenak batzen dituen erakusketa azaroaren 7tik 11ra arte bisitatu ahal izango da Plentziako Goñi Portal kultur etxean; azaroaren 14tik 27ra, Uribe Kosta institutuan egongo da. ◀

Noiz: Azaroaren 7tik 11ra.
Ordua: 11:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:30era.
Non: Goñi Portal kultur etxean (Kale Barria, 2).
Sarrera: Doakoa.

GORLIZ ETA PLENTZIA

Euskara Agendaren barruan, hainbat berbaldi egongo dira

Azaroaren 17an, eguena, *Nola lagundu seme-alabei lagunartean euskara erabil dezaten?* izenburuko berbaldia egongo da Plentziako Goñi Portal kultur etxean, 18:30ean. Astebete beranduago, azaroaren 24an, gaztelaniaz egingo dute. Hitzaldiak bertan behera ez geratzeneko, saio bakoitzean sei lagunek izena eman beharko dute, gutxienez. ◀

izen-ematea: euskera2@uribekosta.org



PLENTZIA ETA GORLIZKO
EUSKARA AGENDA BATERATUA

URDULIZ

Caperucita feroz antzezlanaren edukiko dute helduek

Domeka honetan, azaroak 6, *Caperucita feroz* nagusientzako antzezlanaren eskainiko du Glu Glu taldeak, Urdulizen. Emanaldia 19:00etan izango da, bertoko kultur etxean; eta sarrerak 6 euroan egongo dira salmentan. Komedian musikala da *Caperucita feroz* antzezlanaren, ikuslea erabat txundituko duena. ◀



© GLU GLU ANTZERKI KONPAINIA



ARGAZKIETAN OINARRITUTAKO
TESTU LABURREN
V. LEHIAKETAREN ERAKUSKETA

argihizkiak

Azaroaren 7tik 11ra
Goñi Portal kultur etxean (Plentzia)





Marta Pelejero biolontxelo-jole valentziarrak Musikaldiaren azken egunean joko du.

Egitaraua

Azaroak 4, barikua

19:30 Abesbatzen topaketa: Lagun Artea (Sopela), Aita Gotzon (Barrika), Asparbi (Bilbo).

Azaroak 6, domeka

12:00 eta 16:30 Umeentzako tailerrak.
18:00 Kontzertua: Metalikoak S.A, Euskadi Brass eta Javier Irigoyen.

Azaroak 11, barikua

19:30 Kontzertua: Jeux D'Anches laukotea.

Azaroak 12, zapatua

20:00 Jazz Gaua: Gonzalo Tejada *Special Trio*.

Azaroak 13, domeka

17:00 Kontzertua: Marta Pelejero (biolontxelo).
19:00 Zinema-musika: Arteus orkestra.



LABetik atera berri

**IRATXE
AZKUE REINALES**
LABeko Eskumaldeako
idazkaria

Euskal Hezkuntza Sistema propioa «iruten»

Badira nazio bat egitura-
tzeko orduan funtsez-
koak diren osagaiak;
hezkuntza horietako bat
da, baina hori baino gehiago
ere bada. Hezkuntza nazio ba-
ten etorkizuna bermatzeko ezin-
besteko tresna da. Belaunaldi
berriek osatuko baitute biharko
jendartea. Jasotzen duten hezi-
keta nolakoa, biharko jendar-
tea halakoa. Horrela, hezkuntza
euskaldunak jendarte euskal-
duna sortuko du; hezkuntza as-
katzaileak, jendarte askea...

LABek bide horretan bere
ekarpena egin nahi du: Hezkun-
tza Sistema Propioa Iruten dina-
mika. Eta zergatik «iruten»?

Ezinbestekoa jotzen dugu-
lako Euskal Herriak egun, zein
etorkizun hurbilean, behar
duen hezkuntza eredua gaur-
danik iruten hastea. Gaurdaino,
hamarkadaz hamarkada, eskuz
esku landu dugun hari korda
zahar horrek etorkizuna iruten
jarraitzeko balio behar digula-
ko, eta etorkizuna gure herriari
jantzi berri bat lantzetik pasa-
tzen delako. LABek inposizioak
salatzeaz gain, Euskal Herriak
behar duen hezkuntza sistema-
ren bidean urratsak ematea nahi
du. Maiz adierazi dugun bezala,
desobedientzia ez delako ezetza
adieraztea soilik, bide propioa
ere jorratu behar baita. Horre-
gatik gaurdanik hasi nahi dugu
iruten etorkizuneko euskal esta-
tuak izan behar duen gona be-
rria, gona gorria.

Honetarako herri-ikuspegi-
tik abiatutako tokian tokiko lan
praktikoari funtsezkoa deritzo-
gu. Eta elkarrekin (ikasleak, ira-
kasleak, gurasoak, herritarrak,
zein bestelako eragileak) urrats
berriak emateko aukeran sines-
ten dugu. Baina ez dugu uste
modurik aproposena hezkun-
tza sailei so geratzeko denik; eu-
rak zer esango zain. Guk geuk,
herritarrok adostu eta eraiki
beharko genuke Euskal Herriak
behar duen hezkuntza eredua! ◀

Sopela, musikaz blai

Musikaldia zikloan kontzertuak eta umeentzako
tailerrak egongo dira, hurrengo aste-akabu bietan.

Sopelako Kultur Etxeak Udaz-
keneko Musika-zikloa antola-
tu du: Musikaldia. Aste-akabu
bitan banatu dute egitaraua:
lehenengoan, azaroaren 4an eta 6an
izango dira emanaldiak, barikuan eta
domekan; hurrengo aste-akabuan,
berriz, barikuan hasi eta domekara
bitartean, hilaren 11n, 12an eta 13an,
beren-beregi. Hala, abesbatzen topa-
keta batek abiatuko du Musikaldia ba-

rikuan; horretan parte hartuko duten
abesbatzak dira herriko Lagun Artea,
Barrikako Aita Gotzon eta Bilboko As-
parbi. Sarrera, 3 euroan. Domekan, os-
tera, 4 eta 9 urte bitartekoei begirako
tailer eta kontzertu didaktiko bi eskai-
niko dituzte: 12:00etako saioan, Per-
kusbika bikoteak perkusio-kontzertua
eskainiko du bertaratzen direnen par-
te-hartzeagaz; 16:30ean, Perkusbika
eta Euskadi Brass taldeek tailer didak-

tikoa emango dute. 18:00etan zuze-
nean joko dute Metalikoak SA musika-
fabrikak, Euskadi Brassek eta Javier
Irigoyenek. Emanaldiok doakoak dira.

Horiez gainera, datorren aste-aka-
buko hitzorduak, honako hauek: Jeux
D'Anches zur eta haize laukotearen
kontzertua (hilak 11; 3 euro); Gonzalo
Tejada Special Trioren jazz-emanaldia
(hilak 12; 3 euro); Marta Pelejero bio-
lontxelo-jolearen zuzeneko (hilak 13;
doan) eta Arteus orkestraren ekimenez
musika klasikoa zineman entzuteko
aukera izango da (hilak 13; 3 euro). De-
nak Kurtzio kultur etxean izango dira. ◀

Hitza emanda



Iparraldetik

*Iparraldetik dator
metodo berria,
bullyinga amaitzeko
eragingarria.
Kiva dauka izena
Finlandian jarria;
demaiozun gurean
ongi etorria!*



**JOSU
ARROYO
IZKOA**
Bertsolari algortarra

HIRUKAk proposatutako hitz
baten harira, ALBEko kideek
bertso bat jarriko digute atal
honetan, astero-astero.



Sendientzako hamaika jarduera, zapatuan hasita

Getxoko familietan euskara sus-
tatzea helburu duen proiektua
da Sendi, aurton 10 urte beteko
ditu. Hala, hasi berri dugun azaroa eta
datorren abendua sendientzako eki-
taldiz beteta etorriko dira: sukaldari-
tza, masaje, musika-terapia, jolasa eta
esperimentazioaren gaineko tailerrak;
antzerkiak zein berbaldiak. Doakoak
izango badira ere, izena ematea edo
gonbidapena jasotzea beharrezkoa da.

Lehenengo hitzordua zapatuan
izango da, azaroak 5; *Futbolariak eta
printzesak* antzerki-lanaz gozatzeko
aukera egongo da 18:00etatik aurre-
ra, Areetako Andres Isasi musika-es-
kolan. Hurrengo zita hilaren 14an ipini
dute: musika-terapia tailerra antolatu-
ko dute, 17:30-18:30ak artean, Romo
ikastetxean. Aste bereko egunean,
hilak 18, 16:45-18:00ak bitartean, ma-
saje-tailerrean parte-hartzeko auke-
ra egongo da, Aiboako Larrañazubi
ikastetxean. Eta domekan, hilak 20,

kondairak eta ametsak batzen dituen
Ozeanoaren konkista itzal-antzerkia
eskainiko dute, 11:00etan eta 12:30ean,
Villamonteko kultur etxean. Berriro el-
kartuko dira familiak azaroaren 29an,
17:30-18:30ak bitartean, galletak egi-
ten ikasteko, Azebarri kultur elkar-
tean. Eta hileko azkenengo egunean,
pieza solteen tailerra prestatuko dute,
17:30-19:00ak artean, Zabala ikaste-
txean; eguneroko materialakaz modu
sortzailean jolasteko.

Bestalde, Hazibideak ildoaren ba-
rruan, umeak helburu baina beren-be-
regi helduen trebakuntzarako ekimen
bi prestatu dituzte: bata, azaroaren
24an izango da, «Nola aukeratu jostai-
lu egoki bat?» gaiaren inguruan, Zaba-
la ikastetxean, 17:30ean; bestea, Yolan-
da Arrietak emango duen tailerra da:
«Aho bete amets: ahozko haur-poesia-
ren alde»; abenduaren 14an izango da,
17:30ean, Zabala ikastetxean. ◀

izen-ematea: 644 277 155 / www.egizu.eus/sendi

Zentsura At! jaialdiaren hainbat saio Algortara eta Areetara helduko dira

Zentsura adierazpen denak salatzeari helburu duen ekimena da zentsuraren Aurkako Jaialdia. Serano Produzioak ekoiztetxeak antolatuta, azaroaren 8tik 12ra arte, dokumentalen proiektzioak, antzerkia, kontzertuak eta eztabaida-mahaiak egongo dira sei kokagunetan: Algortako kultur etxea, Areetako Andrés Isasi musika-eskola, Bilboko Ondare zein BBK aretoak, Kafe Antzokia eta Andoingo Bastero Kulturgunea. Hala, Algortako Villamonte kaleko kultur etxean, *Zinea eta zentsura Latinoamerikan* zikloko hiru dokumental ikus-terko aukera egongo da. Batetik, azaroaren 8an, martitzena, Jaime Roldós Ekuadorreko presidentearen heriotza susmagarria oinarri daukan ikus-entzunezko lana proiektatuko dute. Hurrengo egunean, 2015eko abenduaren 14an Mexiko Hiriko Poliziak atxilotutako José Antonio Toño Zúñiga 26 urteko gaztearen bizitza ikusgai egongo



Maidar Legarreta abeslaria.

da, *Presunto culpable* dokumentalean. Azkenik, azaroaren 10ean, eguna, *La travesía de Chumpi* filma emango dute; Peruko meatze-gatazken gaineko ikus-entzunezko lana da. Emanaldi denak 19:30ean izango dira; sarrera, doan. Bestalde, azaroaren 11n, bari-kua, *bullyingaren* kontrako kontzertua eskainiko du Maidar Legarreta abeslaria; udalerriko institutueta ikasleentzat izango da emanaldi hori. ◀

Ekitaldi batzuk

Azaroak 8, martitzena

19:30 *La muerte de Jaime Roldós* dokumentala, Algortako kultur etxean.

20:00 *La mirada del otro* antzezlan, Bilboko BBK Aretan.

Azaroak 9, eguaztena

12:00 Maidar Legarretaren *Anti-bullying* kontzertua, Bilbon.

19:00 *Newen mapuche* dokumentala, Andoingo Bastero kulturgunean.

19:30 *Presunto culpable* dokumentala, Algortako kultur etxean.

Azaroak 10, eguna

12:30 Maidar Legarretaren *Anti-bullying* kontzertua, Areetako musika-eskolan.

19:30 *La travesía de Chumpi* dokumentala, Algortako kultur etxean.

21:30 Los Chicos del Maíz, kontzertua, Bilbon.

Azaroak 11, barikua

20:00 Victor Herediaren kontzertua, Bilbon.

Azaroak 12, zapatua

20:00 Valentina Lisitsaren kontzertua, Bilbon.

Beñat Vidal leioaztarrak kantatuko du Bizkaiko Txapelketaren Zaldibarko saioan

Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren Udagoieneko faseko bosgarren eta azken kanporaketa jokatu da zapatu honetan, azaroak 5, Zaldibarko Olazar pilotalekuan; 17:30etik aurrera, sei bertsolarik abestuko dute. Seikote horretan egongo da Beñat Vidal Gurrutxaga leioaztarra. Zaldibarko irabazlea zuzenean sailkatuko da finalaurrekoetara; besteek, puntuazioen arabera edukiko dute horretarako aukera. Joan den zapatuan, urriak 29, Leioan jokatu kanporaketari dagokionez, Kultur Leioa bete zuten bertsotzaileek, eskualdeko ordezkariak egon ez bazen ere. Ariketa denak egin ostean, Ibon Ajuriagojeaskoa Garmendia gernikarrak lortu zuen puntu gehien batzea. Hala, finalaurrekoetarako txartela lortu zuen, eta Larrabetzuko saioan kantatuko du abenduaren 3an. Bestalde, azaroaren 19an Markinan izango den finalaurrekoan hasiko da lehia Jone Uria Albizuri algortarra. ◀

SARRERA
ENTRADA
3€

GETXOKO MANGA JAIALDIA
FESTIVAL DE MANGA DE
GETXO 2016

AREETAKO
GELTOKIA PLAZA

PLAZA ESTACIÓN
DE LAS ARENAS

GETXO
BIZKAIA

AZAROAK 12 / 13 NOVIEMBRE
ORDUTEGIA / HORARIO: 11-14:30 17-21

«Ez dut nire burua hainbeste kokatzen idazle moduan»

Bea Salaberri Larre (Donamartiri - Nafarroa Beherea, 1979) idazleak irakurleakaz berba egiteko aukera eduki zuen urriaren 27an, Algortako Torrene aretoan. Momentuz, liburu bakarra idatzi du baxenabartarrak: 33 kontakizunez osatutako *Baionak ez daki* (Susa, 2015). Iparra Galdu Gabe jardunaldien barruan eskaini du solasaldia Getxon, UKITXek gonbidatuta.



TESTUA: KEPA UGARTE MARTIARENA / ARGAZKIA: HODEI TORRES

Plazaratu duzun lehenengo liburua da *Baionak ez daki*. Hala ere, bada aspaldi idazten duzula, ezta?

Idazten hasi nintzen eta, gero, pixka bat publikatzen ere bai... errango nuke, duela lau edo bost urte. Lehenagotik ere idazten nuen, baina ez modu jarraikian; gauza oso ezberdinak ziren. Gero, gogoetak publikatzen hasi nintzen nire blog batean; lanari, euskari... lotuak ziren gehienak. Bestalde, banituen testu batzuk, eta momentu batean erabaki nuen pauso hori ematea; testu horiekin ere zerbait egitea. Horren emaitza da *Baionak zer daki*.

Zergatik erabaki zenuen liburua argitaratzea?

Ipar Euskal Herrian, arlo kultural batzuetan, hala nola, dantzan, bertsolaritzan... berpizkunde bat bada. Egia da, beste arlo batzuetan gutxiago dela. Ni beti izan naiz AEK-ko langile eta irakaslea, eta beti euskararen alde egin dut. Baina, momentu batean ari nintzen, beharbada, euskal gizarte horrek eman didanaren ekarpen bat banukeela egiteko. Niri gusatzatzen zitzaidana idaztea zenez, naturalki pauso hori egin nuen. Asmoa zen nik ere ekarpen txiki bat egitea mundu kultural horretan, pretentsio handiegirik gabe. Horrela abiatu nintzen proiektu honetan.

Idazlea izateko beharrezkoa da liburua kaleratzea...

Ezetz erraiten da: ez duela liburu batek egiten idazlea eta, batzuetan, idazleak badirela libururik publikatu gabe... ez dakit. Dena den, idazle-etiketa horrekin nik nekeziak baditut. Liburu bakarra atera dut; hain xu-

mea da; gauza txiki bat da... Ez dut nire burua hainbeste kokatzen idazle moduan.

Zer aurki dezakegu *Baionak ez daki* liburuan?

Irakurleak aurkituko ditu baiones baten esperientzia pertsonalak, molde pixka bat poetiko batean jarriak... Narrazio txiki batzuk izanen dira, independenteak batzuk besteengandik; baina, guztien artean horrelako bilduma bat edo konstelazio bat osatzen dute, eta baiones baten figura agertzen da, bere etsipenekin, pozekin, gogoetekin, haustura pertsonalekin...

“**Maite dut irakurleekin topatzea eta ikustea haiek zer interpretazio egin duten nik idatzitako testuarekin**”

Bazterrean gelditu ohi diren gauza txiki eta ezdeusetan oinarritu omen zara liburua osatzen duten kontakizun laburrak idazteko.

Beharbada, garai batean, nire begirada gauza txikietan zentratzen zen; emozio biziki handiak sentitzen nituen detaile batzuekin. Hainbat gogoeta eta oroitzapen pizten ahal zizkidaten gauza txiki horiek. Hor-tik hasi nintzen; eklektikoki eginak, banituen idatzi

batzuk. Horiek osatzen joan nintzen baiones horren ikuspegi ezberdinetatik: langile batek, ama batek, militante batek... nola ikusten zituen gauzak. Anitzetan, txikikeria hori aitzakia bat da; abiapuntu bat da, baina, gero, irekitzen dituen gogoetek ekartzen dute zabaltzen den gaia. Zerbait orokorragoa agertzen da.

Horrenbestez, ez da euskal gai sakonak irakurtzea gogoko duten irakurleentzat pentsatutako liburua.

Nik uste, norbaitek pentsatzen badu badela hor baiones baten analisia, sakona, kanpo begirada batetik, bere egoera edo posturen inguruko hausnarketa bat izanen dela... hori ez du aurkituko. Irakurleekin izan ditudan inpresioek hori agertzen dute; jendeak gauza txiki batzuk ikusten ditu. Beharbada, idazle batek pertsona batengan jarriko luke begirada: egiten duena, pentsatzen duena... hortik ondorio batzuk aterako lituzke eta, seguru asko, pertsonaia horrek ekingo luke. Nirean, egia da, gehiago, kamera pixka bat emana dela pertsonaiaren barnerantz; eta filmatzen dela gehiago berak nolako pertzepzioa duen munduaz, baina, ez horrenbeste analisisetan. Nik ez nuen horretan erori nahi, nola erran... literaturan, irten izan zaizkit anitzetan orrialde luzeetako analisi horiek. Ni ez naiz gai sentitzen horrelako gauzak egiteko eta, anitzetan, astunak egiten zaizkit.

Hala ere, hausnartzeko aukera ematen du?

Nik uste dut badirela hainbat ideia hortik direnak. Ateak irekiak dira: batzuetan formulazioak aski ire-



Baionak ez daki

Egilea: **Bea Salaberri Larre**

Argitaletxea: Susa (2015)

Sinopsia

Baionak ba ote daki zenbatekoa den euri uhar baten gozoa, lantokian partekatzen ari diren bixkotxaren ahalmena. Baionak ba ote daki zerk eragiten dien zirrara zubi gainetatik datozeinei, noiz elkartzen diren isilpekoez mintzatzeraz, nola egiten duten aitzina. Baionak ba ote daki haren altzotik urruntzeko gogo sortzen duela sarritan.

Bea Salaberriren lehenengo narrazio liburuak eguneroko bizitzako gertakari sinpleetan ipintzen du arreta, kasik ezdeusetan. Kontu tipieneri begira, detaileetan atsedean harturik, idazlearen estilo soilaz landutako begiradok funtsezkoa den hartara astiro hurbildu nahi gaituzte.

kiak dira eta nork bere interpretazioa egin beharko du; baina, hala ere, gauza batzuekin, bai, ageri dira, garbiki, baionesak arazo bat duela gizarteak jartzen dion eredu derrigortu batekin, teknologiaren garapenak ekartzen duen kontraerrenekin... Holako gai politiko-sozial batzuk agertuko dira eta horien inguruko iritzi bat agertuko da; baina, gero, hortik, analisi bat orokortzea, bakoitzari dagokio.

Zein duzu gogokoen kontakizun denen artetik?

Gehien maite dudana? Hori ez dakit. Denak nire txikiak dira. Agian, parasolarena, euritakoarena. Bertan ibilbide bat kontatzen da: karrika batzuetan gandi, euripean, pertsona batek besteari luzatzen dio aterki bat, eta badoaz biak elkarrekin. Niretzat irudikatzen du jendearen arteko elkartasun edo hurbiltasun bat, egunerokotasuneko keinu txikiak... Hori idatzi nuen, hastapenetan ez, baina gero etorri zitzaidan gogorat nola anitzetan ibilbide hori orain zendua den nire lagun batekin egiten nuela. Egia da berari pentsatuz idatzi nuela hori. Berekin ibili izan gara hortik goizean goiz, lanerako bidean, eta, egia da, anitzetan parasola batekin gindoazela; iruditu zaizkit momentu horiek biziki inportanteak. Lanera baino lehen trukatzeko diren bi gauza horiek... Txiki horretan oso inportanteak ziren momentu horiek.

Hainbat irakurle-klubetan parte hartu duzu.

Urtebete izango da atera dela liburuaz; denbora horretan, Ipar Euskal Herriko zenbait tokitan ibili naiz; eta

Hego Euskal Herrian, Gipuzkoan gandi, Nafarroan... Hara! Eta gustura beti. Ahal dudanean banoa; maite dut irakurleekin topatzea eta ikustea haiek zein interpretazio egin duten testuarekin. Batzuetan badira gauza harrigarriak, espero ez zenituenak. Goxo da jendearekin egotea; nik maite dut.

Harrera biziki ona ukan dut orain arte eta, gainera, kritikak onartzen ditut; dena dut ikasteko. Liburuaz berriz irakurri nuenean, ni ere kontziente naiz gauza batzuk, beharbada, ezberdin egingo nituela gaur. Algortako solasaldian batek erraten zidan zai-

“ Ipar eta Hego Euskal Herria hurbil sumatzen ditut; hurbiltasun handia bada hizkuntzak berak egiten duena ”

la egin zitzaizola hiztegi-mailan. Kontziente nintzen hortaz; ez nuen pentsatzen hainbesterako zenik, baina jakitea ondo da.

Idazle batentzat beharrezkoak dira horrelako saioak izatea irakurleakaz?

Nik uste dut baietz. Berriz diot: idazle-etiketarekin ez dut nire burua identifikatzen... Idazten duzularik ba-

karrik ari zira; bakardadea mundu handi bat da. Ez dakit nola den Hego Euskal Herrian; baina, Ipar Euskal Herrian, adibidez, idazleen arteko holako topagunerik ez da. Beharbada, gutxi garelako, beste mila gauzetan gabiltzalako... baina, ez da. Beste kultur espresioetan ere ez: ez da antzerkilarien plataforma... Egia da goxo dela, momentu batean, zuk egin duzun lan baten inguruan biltzea lan hori irakurri duen jendearekin; eta hortik ere ikastea, bakardadea hautsiz, pixka bat.

Ipar eta Hego Euskal Herria urrun edo hurbil nabaritzen dituzu?

Hurbil sumatzen ditut; puntu komun anitz badira. Nik uste dut indartu behar dena batasunarena dela, elkarrekin komunean dena... eta horretan dela ekin behar, eta hortik eraiki behar dela. Gero, egunerokotasunean, muga sentitzen da: fisikoa, administratiboa... Bizimodu ezberdintasun bat ere sentitzen da. Baina, horretan oinarrituko bagina eta hori azpimarratuko bagenu... nik uste, hori ez dela konstruktiboa. Horretaz ohartu eta horri itzulua eman behar diogu: elkarlana nola egin daitekeen, nola gara daitezkeen proiektuak komunean, nola egin daitezkeen trukaketa batzuk elkar ezagutzeko... Arlo guztietan gauza batzuk badira, bata bestearen ondotik jarrita, egin dezaketena hurbiltze hori lagundu. Baina, gero, berriz diot: hurbiltasun handia bada, hizkuntzak berak egiten duena. Gainera, gero eta ekitza gehiago egiten dira bide horretan. ◀



Erandioko bizikletazaleek 1999. urtetik antolatzen dute zikloturisten eskubideen aldeko martxa. © ERANDIOKO TXIRRINDULARI ELKARTEA

Txirrindularien bizitzak babesteko, «Marra gorria» izeneko seinalizazioa proposatzen dabil Erandioko Txirrindulari Elkarteak 1999tik. Behingoz, kasu egin diete.

Hamazazpi urteko ahaleginaren ostean, Erandioko Txirrindulari Elkarteak (ETE) lortu du erakunderen batek zikloturistentzako babes-eskaeragaz bat egitea. Hala, Bizkaiko Batzar Nagusietako Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Batzordeak aho batez onartu zuen «marra gorria» de-ritzona ezartzeko bideragarritasun

«teknikoaren eta legezkoaren» gaine-ko txostena egiteko eskaera, pasa den urriaren 25ean. Hala, Bizkaiko Foru Aldundiari eskatu diote hori egin de-zan, sei hilabeteko epean.

Arauz besteko eskaera horrek Batzarretako talde guztien sinadura da-roa, PPrena izan ezik; baina, talde horrek, azkenean, bat egin zuen propo-samenagaz, aldeko botoa emanez. Joan

zen maiatzaren 13an, ETEko ordezkari bik aurkeztu zuten proposamen hori Eskarretarako eta Herritarrenganako Hartu-emonetarako Batzordean; Batzar Nagusietako taldeek bereganatu eta arauz besteko proposamentzat aur-kezteko. Batzordekide batzuek adierazi zuten, Europako herrialde batzuetan «ohikoa» den neurria aplikatzea erraza da; nahikoa delako marra gorria mar-gotzea galtzadan, automobilaren eta bizikletaren artean egon behar duen 1,5 metroko segurtasuneko tartea ezartze-ko, automobilen aurreratzeko manio-brak egiten dituztenean kontuan izan

dezaten. Proposamena aurkeztu duten taldeek (EAJ, PSE-EE, EH Bildu, Ahal Dugu eta Talde Mistoa) azaldu zute-nez, «marra gorria»-ri bidea eman au-rretik, Aldundiak aztertu egin beharko du neurri hori arlo horretako ezelango legediaren kontra ez dagoela. Errepi-deetako Araubide Orokorren, Txirrin-dularientzako Bideen Lurraldeko Sek-tore Planaren edo Aldundiaren esku dagoen Bizkaiko Txirrindularientzako Bideen gaineko 10/2014 Foru Arauan jasotzen den Txirrindularientzako Plan Zuzendariaren aurka, alegia. ◀

info+: Hiruka.eus/erandio

HIRUKA ZAITEZ!
eta Gabonetan...

ERRI GORAren
SASKI hau irabaz
dezakezu

Saski beltza zozkatuko dugu abenduaren 31 baino lehen,
Hirukalagun edo bazkide egiten zareten guztien artean.
Horrenbestez, izena eman eta Hirukabantailez
gozatu aurrerantzean!

HIRUKALAGUN EGITEKO:

e-mailez
hirukakoop@hiruka.eus

telefonoz
94 491 13 37

agerkariaren bidez
<http://hiruka.eus/harpidetza/laguna/>



Ager Aketxe, Bigarren Mailako onenen artean



Ager Aketxe, Iraia Iturregi eta Jose Angel Iribar izan ziren Athleticen ordezkarietako batzuk. © LFP

Ager Aketxe Barrutia Athleticen erdilari itzubaltzetarrak Espainiako Ligaren esker ona jaso du, aurreko denboraldian Bilbao Athleticen egindako lanagatik. Aketxe Bigarren Mailako hirugarren futbolari onena izendatu dute, José Naranjo (Nàstic) eta Gabriel Pires (Leganés) jo-

kalarien atzetik. Itzubaltzetarra ia osatuta dago, pasa den maiatzaren 26an lotailu-lesioa izan ondoren. Hala, klubak espero du urtarrilerako zelairatzea. Lesioaren ostean, Athleticen jokalariairengan konfiantza izan eta beste urte batez berritu zion ekainaren 30ean amaitu zen kontratua. ◀

Abian da bosteko futbol txapelketa, Algortan

Barikutik domekara, bosteko futbol-txapelketa mistoa izango da Algortako Batzokiaren patioan. Ekimena Mondragon Unibertsitateko Lidergo Ekintzaile eta Berrikuntza Graduko hainbat ikasle algortarrek antolatuta dute. Txapelketa maila bitan banatuko da: 14 eta 17 urte bitartekoak

eta 18 urtetik gorakoak; sariak 100 eta 150 eurokoak izango dira. Talde bakoitzak bost kide izan beharko ditu, gutxienez; eta, hamar, gehienez. Izen-ematea whatsapp-mezu bat bidaliz egin daiteke. Halere, pertsona bakoitzak bost euro ordaindu beharko ditu. ◀

izen-ematea: 660 256 891

Astrabuduko Futbol Taldearen aurkezpena

Pasa den zapatuan, Erandioko Astrabudua auzoak harrotasunez erakutsi zuen gizonezkoen futbol-taldearen harrobia. Izan ere, Astrabuduko Futbol Taldeak jendarean aurkeztu zituen denboraldi berriko dituen 26 taldeak eta ehunka jokalaria, hasiberrietatik eta Bizkai-

ko Preferente Mailako talderaino. Jorge Pérezek zuzendutako klubak pasa den uztailan aurkeztu zien kirol-proiektua bazkideei, zaleei, gurasoei eta jokalariei. Besteak beste, zuzendaritza-taldeak berretsi egin zituen Athleticen elkarlana eta entrenamenduak euskaraz egiteko programa. ◀



ALBE, Agurra, Berantzagi eta Itxas Argia; Getxoko kultura Txantxangorriarekin.

Ziklokrosean, bertokoak nagusi



Saioa Gilek podiumetik ez jaisteko ohitura hartu du. AITOR BURGOA - AIARALDEA.EUS

Upetzatik irten barik dabil ziklokros-denboraldia. Bosgarren proba jokatu zen Legazpin, pasa den martitzenean. Hainbat lehiaketarako puntuagarria ez zenez, parte-hartzea txikiagoa izan zen. Bertan, Eider Merino Lointekek txirrindulariak Elite mailako bigarren postua lortu zuen. Gizonezkoetan, Xabier Mendiara (Caravanas Erandio) eta Juan Carlos Eguiluz (Leioa Txirrintxu Elkarte) lehenengo eta hirugarren lotu ziren, Master 50 mailan; eta Andoni Jimenez (Unión Ciclista Erandio) nagusitu zen, Master 40 mailan.

Aurretik, Xabier Mendiara besterterketa bat irabazi zuen Master 50ean, zapatuan, Laudion. Eider Merino Espainiako Koparako puntuak baten segitu zuen, Eliteko hirugarrena izanda. Gazteetan, ordea, Saioa Gil eta Sara Yusto Bioracer Elkar Kirolakekoak bigarren eta hirugarren sartu ziren. Federazioak oraindino daturik eman ez badu ere, domekan, Muskizen, Biora-

cer Elkar Kirolakeko taldekideek hainbat sari jaso zituzten: Alba Fernandezek garaipena lortu zuen, 23 urtez azpiko kategorian; eta, Saioa Gil hirugarrena izan zen, gazteetan. Urriaren 23an, Abadiñon, Gil bigarren izan zen. Arflu Punta Galeak eta Sopela Ugeragak ere saria izan zuten: bigarren geratu ziren Sandra Trevilla, Eliten; eta, Paula Suarez, 23 urte azpikoetan. Bestalde, Andoni Jimenez eta Juan Carlos Eguiluz hirugarren sailkatu ziren.

Urriaren 8an abiatu zen ziklokrosaren denboraldia, Urduña Hiriko sariaren harira. Bertan, Saioa Gilek lasterketa irabazi zion Andere Basterra Sopela-Ugeragako lehiakideari, gazte mailan; Elite mailan, Lucia González Lointekek kidea nagusitu zen; eta 23 urtez azpikoetan, Alba Fernandezek podiumeko hirugarren mailara igozteaz lortu zuen. Gizonezkoetan, Andoni Jimenez eta Xabier Mendiara nagusitu ziren, Master 40 eta Master 50 mailetan, hurrenez hurren. ◀

Boxeoa Pizten jaialdia antolatuko dute Getxon

Zapatu honetan, Getxoko Andra Mari probalekuan, Boxeoa Pizten izeneko borrokaldi-festa egingo da, 20:00etatik aurrera. Kirol-ekimena Izarrak Boxing taldeak eta MGZ sustapen-enpresak antolatu dute; sarrerak salgai daude daborduko, 10 euroan. Azken unera arte itxarongo dutenek 15 euroan erosi ahal izango dute txartela, Andra Mariko leihatilan bertan. Denera, bederatzi borrokaldi izango dira zapatuan.

Profesionalen mailan Guillermo Riveroren estreinaldia izango da gaueko saio nagusia. Larrabasterran bizi den algortarrak Redouan Bentalev maro-

koarra izango du arerio. Rivero ahaleginduko da amateurretan lortutako 26 garaipenei beste bat gehitzen, kategoria berri horretan.

Estreinaldi horregaz batera, arreta handiena isiotuko dute beste borrokaldi bik: Izarrak Boxing taldeko Naiara Olmedo sopoloztarrarenak eta Goizane Pérezerenak, alegia. Olmedo Lopabox taldeko Corey Macclintock-egaz lehiatuko da; Pérezek Ukabilak klube-ko Aleliren aurka borroka egingo du. 16 soken artean borrokatuko dira Izarrak gimnasioko beste kide hauek: Iñigo Lopez, Markel Garcia, Unai Ibañez eta German Zubiaur. ◀

Baqué-Saronik lau fitxaketa egin ditu daborduko

Baqué-Saroni taldeak 2017. urtera-ko bere lehenengo lau txirrindulariak fitxatu ditu: Luis Miguel Márquez, Agustín Aranda eta Pablo Salido andaluziarrak eta Mauricio Graziani argentinarra. Graziani erloju kontrako probetan aditua da eta Argentinako txapelduna izan da modalitate horretan, gazte-mailan. Salido ere erlojupekoan txapelduna izan da Andaluzian, 23 urtez azpikoetan. Agustín Arandak 10 garaipen lortu ditu bere lehenengo urtean. Márquezek, oster, gazte mailatik jauzia emango du. Baquéren taldea berri egin da, 23 urtez azpiko txirrindulariakaz lanean segitzeko. ◀

Umeen Bizikleta Festa eta Txuma Klasika, iruditan

Berango, Erandio eta Leioako udalek bultzatutako Elkar Kirolak txirrindularitza-eskolak publiko egin ditu egunotan ehunka argazki eta bideo batzuk. Argazkiak pasa den urriaren 16an ospatu zen Umeen Bizikleta Festarenak dira, eskolaren ikas-turte-akabua izan zen orduan. Bertan, 4.000 pertsona baino gehiago batu ziren, Erandiotik Berangora betetako txirrindularitza-ibilbidean edo beranduago Moreaga parkean egindako jaialditxoan. Modu berean, Txumaren Hiru Egunak kadeteen klasikako hiru bideo ere argitaratu dituzte. ◀

info+: Elkarkirolak.com

GetxoGas

**GetxoGason
Euskararekin
bat!!**

Getxo eta Berango artean
94 430 15 00

JUAN MARI
Harategia · Urdaitegia



Baserriko haragia, produktu
artisansaua eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25



Kirolaz beste

IÑAKI ETXEGIA MARDARAS
Kirolaria

Arrakasta helburu, heziketa barik

Judoka berri askoren igoerak sortu didan poztasuna ez da horien gurasoek erakusten duten jarrerak sortzen didan tristuraren bezainbestekoa. Haurrak Judora apuntatzen dituzte baloreak lantzeaz gain, auto-kontrola, koordinazioa... lantzen direnaren aitzakiaz, baina benetan hori dute buruan? Izan ere, guztiz kontrakoa den jarrera azaltzen dute eurekin hitz egi-terakoan. «Zelan egiten du nireak, ona da? Kaña eman!». Erabat itsuturik horrelako galdera eta aholkuak ematera ausartzen dira maiz. Judoken arrakasta irabazi edo galtzeaz harago, berdinkideak errespetatu eta eurekin ikasten jakitean dagoela ahaztuz. ◀

Zorion agurrak

Urtebetetze, ezkontza zein jaiotza... Bidali zeurea!
publi@hiruka.eus • 944 911 337

5€



AITOR
ITZURBALTZETA
Maltzurren partez

Zorionak, Arriagako tigre hori! Agin gabeko tigre zaharrek ez dute kosk egiten, baina berdin ikara ditzakete etsaiak euren sabel-orroaz!



MARITXU
ALGORTA
Ari eta lagunaren partez

Zorionak, Maritxu poxpolintxu!!!! Laster etorri eta goazen zure urteak ospatzera!!! Musu izugarri handi bat, amatxo eta laguntxo.



ATEKA
GETXO
Kuadreren partez

Zorionak, amatu Ateka eta familia osoa!! Pilo bat musu jaio berri den txikitxoari. Lastanez betetzeko irrikitan gaude izeko guztiok! Bizipoza!



EKHI
ALGORTA
Etxekoaren partez

Gure lagun bihurriak urtebetea egin du... Zorionak, Ekhi! Oraindik gogoratzen dugu ile-bolatxo zinenean, zeinen azkar hazi zaren!

Lehiaketa. Non da?

Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?

SARIA

Musiketan zikloa

Mark Olsonen (The Jayhawks) eta Rubén Pozoren (Pereza) kontzerturako 3 sarrera bikoitz ditugu

Azaroak 20, domeka, 20:00;
BBK Aretoa (Bilbo)

Producciones Serranoren ekimenez, Mark Olson eta Rubén Pozo bikoteak eskainiko duen emanaldirako sarrerak zozketatuko ditugu. Gura badituzu, hilaren 11 baino lehenago, helarazi erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337



Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Egoera berri batek garai bateko *kinitoak* ekarriko dizkizu gogora. Ajea antzekoa izan daiteke zure jo-kaera ondo prestatu ezean.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Osasunari arreta ipintzeko unea heldu zaizu. Hala ere, hobe da apurka-apurka aldatzea; eta ez, dena batera, aldi berean.



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Zalantza denak sakon aztertzea ondo dago, baina noiz edo noiz erabakiren bat hartu behar izango duzu. Hainbat lagun dago zure zain.



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Egin kasu hurkoei eta, batez ere, maite zaituztenei. Izan ere, azken aldian nahiko baztertuta izan dituzu. Elkarren beharra duzue!



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Ez jokatu zeken etsaiakaz. Haiek ere ez lukete zure gaz horrela jokatu. Irabaztekoan ere asko gal dezakezu, besteak umiliatzegaz batera.



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Zortea zure alde izango duzu. Halere, kontuz espe-ro ez duzun dirutxoren bat jasotzean; komenigarria izango da gordetzea, garai txarrak datozenerako.



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Eguzkia ez ikusteagatik negar egingo baduzu, mal-koek ez dizute izarrak ikusten utziko. Hortaz, ez belztu kopeta eta gozatu daukazunaz.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Kontuz ibili egutegiagaz. Ondo erreparatu datei eta ez ahaztu lagun horren urtebetetzea, ondo geratu gura baduzu behintzat.



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Etxean konponketa txikiak egitea suertatuko da. Dena den, horiek konpontzeko gai ez bazara, ez larritu, eta profesionalen bati deitu.




Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Arropa aukeratzea egokituko zaizu hemendik gu-txira. Ez duzu gustukoa arropa-dendaz arropa-denda ibiltzea, baina asmatuko duzu.



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Udan horrenbeste jai eta parranda bizi izan ostean, ez da ulergarria orain aurpegiera hori ipintzea. Festa nahikoa izan duzu. Ostera, laster gehiago izango da.



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Azken boladan gauzak nahiko ondo doaz zuretzat. Baina inguruan baduzu hain pozik ez dabilen baten bat; laguntza eskaini beharko zenioke.

**SARTU GURE
WEB BERRIAN**
www.cianoplan.es
902 103 763

kartelgintza



inprimategia



kopisteria



Txoriak txori

JUAN LUIS MUGERTZA



Sarritan, ondoan egon ohi dira, baina ez gara jabetzen. Pasealdia atseginago egiteko musika eskaintzen digute, baina ez diegu kasu handirik egiten.

Aspaldian, ordea, bestelako tratua zuten. Euskaldun askok, bereziki baserritarrek, ahotan izan ohi zuten, eta soloak lantzeko garaian, edo pertsona baten izaeraz mintzatzean, txorien izenak erabiltzen zituzten. Adibidez, lotu ezinik ibiltzen zenari, ipurdikara esaten zioten. Isildu ezinik egoten zenari, pitxartxara. Pertsona argalari, ezerezari, txirta. Txikerra, bihurria bazen, txepetxa.

Halarik ere, badaude beste asko. Esaterako, belatz gorria, zerutik zintzilik, orekan; zapelatz, argi indarretako kableetan pausatuta; basahateak, Kua! Kua!, aitita-amamak eta umeekin berriketan; martin arrantzalea, gezi baten antzera begien aurretik urdinaren ederra marraztuta uzten duena; sasoi batean mezuak bidaltzeko, eta hiri-herri guztietan, horren ugaria den haitz usoa; edo... Horiek denak gure txoriak dira, eta arrasto handia utzi dute euskal kulturari, eta asko zor diegu.



Txolarrea (artatxoria)

Oso txori arrunta da, eta etxean bezala ibiltzen da gugandik oso gertu. Izan ere, bihurri xamarra, eta lotsagabea da. Aukera ikusten badu zer edo zer jateko, gai da EROSKIn ere sartzeko. Ongi bereizten dira emeak eta arrak. Azken honek eztarrian, paparrean *babero* beltza du, emeak ez bezala. Bestelako txolarreak ere badaude, baina ez gurean: txolarre iluna, landa-txolarrea, harkaitz-txolarrea...



Buztanikara zuria (*epertikere*)

Txori honek ere ez daki geldirik egoten. Burua ez bada isatsa izaten du beti dantzan. Hortik euskaraz egokitutako izena. Beltza, zuria eta grisa du janzen duen soinekoa. Nekazaritza-inguruetan ikusten da gehienetan, baina ez da arraroa herrietan ikustea. Oso bitxia du hegan egiteko modua. Uhinak marrazten ditu airean, eta koherentziarik gabeko letra erabili ohi du bere kantuetan. Larre-ipurdikara eta buztanikara horia ez dira horren arruntak gurean. *Epertikere* esaten diogu Bizkaian.



Hontz zuria

Honek egun argitan egiten du lo, eta gauean parranda. Mamu zuri bat dirudi hegan doala, eta kantua beldurgarria du, baina ez izan beldurrik. Burua biribila du, bihotz baten itxurakoa, eta zuria. Sagutxoak eta satitsuak gogoko ditu, eta elizako kanpandorreetan eta etxe hegaletan patxada ederrean pausatuta egotea. Ez da gautxori bakarrik gure inguruetan. Urubiak eta mozo(i)loak ere nahikoa arruntak dira, baina hontza ertaina eta zatak ikustea oso zaila da. Gainera, zatak udan etorri ohi dira.



Birigarroa

Arboladiak eta mendi parajeak gogoko baditu ere, ez da bat ere zaila gure herrietako belarguneetan saltoka ikustea. Arrak eta emeak nahiko antzekoak dira: paparrean eta alboetan mantxa arre-beltz asko dituzte. Oso kantari onak dira, eta musika genero asko ezagutzen dituzte. Teknika oso landua dute barraskiloen eskola zulatzeke, eta barrukoa jateko. Birigarro txikia, garraztarroa eta durdula ere familia horretakoak dira.



Mika

Txori handi hau Azkorri inguruko pinudietan ibiltzen da, eta behin ikusiz gero, oso erraza da bereiztea, lumadi zuri-beltza eta buztan luzea direla-eta. Gertutik ikusiz gero, berdexka eta urdinxka kolorea atzematen zaio alde beltzetan. Eta lapur ospea du, kolore biziko gauza distiratsuak (betaurrekoak, giltzak...) gordetzeko joera baitu. Arriskua ikusten badu apeu ozena du. Bikotekideak oso fidelak omen dira, eta heriotzak baino ez ditu banatzen.



Zozoa

Hau ere oso ezaguna da. Gugandik oso hurbil bizi da, nahiz eta mendietan ere ikus daitekeen. Askotan lorategietan ibiltzen da janari bila; lurra bigun badago, mokoa erabiltzen du ezkutuan dagoen zizareari kolpe egiteko. Arraren lumadia beltza da, eta begi ingurua eta mokoa horiak ditu. Elkarren antza izan arren, emearen hegatsa eta mokoa arreoak dira. Neguan familiako beste zozo-mota bat etorriko da bisitan, eta taldeka ikusiko ditugu. Arabako zozo pikarta du izena, eta aurre aldean puntu zurixkak ditu.



Txepetxa (epetxa)

Zazpiki hutsa da, ezin egon geldirik. Ez dakit horregatik ez ote den izango, baina hamaika gramoko pisua du, eta mokotik isatsaren puntara bederatzi zentimetro luze. Txoririk txikienetakoa da. Arrea da, betile zuri handi batek zeharkatzen du begien goiko alde, eta bizkarralde gorrixka du. Pausaturik dagoenean, isatsa askotan tente izaten du. Oso bakartia da, eta sarritan sasietan egon ohi da ezkutuan.



Txantxangorria

Ez da egongo txori maitagarri hau ezagutuko ez duenik. Halarik ere, oso erasokorra da, ez baita erraz kikiltzen bere lurraldea defendatzeko momentuan. Oso nabarmen du kopetan, eztarrian eta paparrean laranja kolore bizia, eta gainaldean arre-oliba kolorea, eta sabela zurixka. Oso goiztiarra da, eta iluntzean berandu oheratzeko ohitura du. Udaberrian emeak bospasei arrautza gorrixka jartzen ditu, arre koloreko mantxa txikiekin.



Ubarroi handia

Txoriez ari garelarik, ezin albo batera utzi itsasokoak. Oso ohikoa da hegoak zabalik ikustea, itsas bazterretako harkaitzetan, hegasti hau: ubarroi handia. Askotan, ur azaletik hurbil ikusten dugu ziztu bizian hegan txori beltz hau, lepoa luze. Oso igerilari ona da, eta gai da ur azpian denbora luzez egoteke. Begien azpian orban horia du, eta kokospean zuria. Horrelako xehetasunak ikusteko ezinbestekoa da prismatikoak erabiltzea. Mokoak kako itxura du, eta horrek aukera ematen dio arrainak hartzeko.

Txoriak eta esaera zaharrak

Azkar eta ondo usoak egiten du hegan.

Beltz guztiak ez dira beleak.

Eperra mingainetik galtzen da.

Hegaztia airerako, gizona lanerako.

Hoa antzarak ferratzera!

Hostoak erori, habiak ageri.

Kalean uso, etxean otso.

Mundua nahi duenak luzaroan bizi, oiloekin ohera eta txoriekin jaiki.

Okila kantetan, euria ateetan.

Txoriak ere duen hainbat odol ematen du.

Zozoak beleari ipurbeltz.

Txoriak ere duen beste odol isurtzen du.

Txori bat eskuan hobe, ehun hegaz baino.

Kaiola deus ez txoririk gabe.

Bitxikeria batzuk hegaztien inguruan

Munduko txori bidaiari handiena Ipar-txenada da, eta Artikotik Antartikara migrazio sasoian hemeretzi mila kilometro egin ditzake.

Zortzi mila eta seiehun txori espezie daude mundu osoan. Penintsulan bostehun eta hirurogeita bederatzi inguru.

Kolibria da atzera hegan egin dezakeen txori bakarra.

Hegaztirik azkarrenak malkar-sorbeltza eta belatza dira. Lehenengoak berrehun kilometro orduko baino gehiago har dezake. Bigarrenak hirurehun. Azken hau inoiz Azkorriko labarretan ikus daiteke.

Txoriek abesten dute beste txoriak erakartzeko, eta arriskua jakinarazteko. Gehienetan, arrek abesten dute.

Txori bakoitzak bere melodia du. Antzarek karranka egin ohi dute, usoek urruma, enarak txio, txontak txorrotzio, artatxoriak pio...

Munduko txoririk txikienak «sunsun» du izena, bi gramo pisatzen du, eta Kubakoa da. Handienak ostruka, bi metro eta erdi baino gehiago luze, eta ehun eta hamar kilo pasatxo; Afrikakoa da.

Euskaraz badaude txori batzuk oso izen bitxia dutenak: marikoi handia, marikoi isatslaburra, pоторro arrunta, pоторro txikia...

Arriatera hondartza (Sopela, 1970)

Lehen/Orain



Uribitakora



TESTUA

Peio Arondo Barandiaran

DOINUA

Zuriko

ARGAZKIA

Jorje Perez

Barraskilo bat

Txikia izan daiteke
baina ez da gutxi
geldi dagoenean
ezin dute hautsi
barraskiloak zerbait
ahal digu erakutsi:
astiro ibili baina
arrastoa utzi.

Ezkutatzean bere
etxetxo txikian
nahiz hutsik dagoela
dirudien agian
begiratzen badugu
behar den tokian
beti dago zeozer
oskola azpian.

Eguzkia badoa
ta lainoa heldu
hauen oso antzeko
bagara ere gu
euskaldunontzat dira
agian eredu
barraskiloak ere
euria maite du.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, ALBEko kideek jarritako bertso eta guzti: hiruka@hiruka.eus

Erakunde laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua